




ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

15. Alea 1997ko Abendua

ALMENEK GALARTZAKO ABADETXEA IKASGELA BIHURTU DU



- ELKARRIZKETA: NORA ISASI, TELESKO ko LANGILE BERRIA
- EUSKARAREN KALE ERABILERAREN NEURKETA

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

- Udaletxea 714407
- Udal Bulegoak 714532
- Udaltzaingoa 714407
- Euskaltegia 792168
- Kultur-Etxea 714688
- Gizarte-Laguntzailea 714688
- Kiroletxea 715328
- Liburutegia 714688
- Luis Eceiza 714938
- Jose Arana-Almen Ikastola 714486
- Almen 714964
- Museo-Eskola 714688
- Ze Barri 714077
- Talde Antimilitarista 715028
- Irakasle Eskola 714157
- Osakidetza 714452
- Telesko 714917
- Taxia 714059

Bestelakoak

- Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 797199
- Suhiltzaileak (Oñati) 792800
- Renfe (Zumarraga) 721515
- Renfe (Gasteiz) (945) 232030
- Pesa (Arrasate) 791419
- Larrialdiak (Arrasate) 771043
- SOS Deiak 088

ZE BARRI?

Argitaratzailea:
AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano.

Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1.500 ale

"ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure Zerbitzura

NORA ISASI

Teleskoko langile berria

Nora Isasi kazetaritza ikasten ari da, eta Lekuren lankidea izango da hurrengo 6 hilabetetan. Egingen ere idazten du Arrasateko herri-kroniken txokoa.



1.-Zer moduz Teleskon?

Gustora. Oraindik denbora gutxi daramat Eskoriatzan, baina gustora.

2.-Zer esperientzia daukazu telebista munduan?

Ez daukat esperientzia haundirik. Orain 4 urte inguru Arrasate Telebistan "Gazte Nahaste" izeneko mahai inguru bat aurkezten nuen Gorka Etxabe atxalbaltzarekin batera, baina bestela ez dut telebistan lan gehiago egin.

3.-Zer lan egingo duzu Teleskon?

Albistegietako erredakzio lanak bete eta irudietan ahotsa sartu. Urte hasieran beharbada erreportaiez osaturiko programa bat egingo dut baina oraindik ez dago finkatuta.

4.-Zein helburu daukazu Teleskon?

Nik egindako lana neuk aurkeztea.

5.-Noraino heldu nahi duzu?

Ez dakit. Hasieran telebistaren mundua gustatzen zitzaidan. Irratia ez dut probatu oraindik, baina prentsan idaztea da niri gustatzen zaidana. Testuak sakontzeko aukera daukazu, gauzak hobeto jorratzeko. Hala ere, irratiari probatzea ere gustatuko litzaidake.

6.-Zer iruditzen zaizu Ze Barri?

Orri gutxi ditu agian, baina normala da, Eskoriatzan informazio larregi ez bait da mugitzen. Hala ere, oso ona iruditzen zait iniziatiba.

7.-Zer egingo zenuko Eskoriatzako alkatea bazina?

Niri tokatzen zaidanagatik, eta herria ezagutzen dudanagatik, herri komunikabidean lagundu eta bultzatzea.

1-Entzun duzu Gellaok Aretxabaletakoa izan nahi duela?

2-Zer iruditzen zaizu?



1 - LUIS MARI ROTETA BENGEOA

(29 urte, langilea)
-Ez, ez dut entzun.
-Bost axola zait.



5 - JUAN LUIS MARKAIDE ARMENDARIZ

(28 urte, lanean)
-Bai, zerbait entzun dut
-Txarto dago, arazoak konpontzeko modua egongo dela uste dut.



2 - MIGUEL AZKARATE ORTUETA

(35 urte, langabezia)
-Bai, entzun dut.
-Berdin zait.



6 - AMAIA URIBETXEBERRIA GOROSTIZA

(16 urte, ikaslea)
-Ez, ez dut entzun
-Txarto, bestela auzo barik geratuko gara.



3 - GAIZKA ZUBIZARRETA ELIZBURU

(20 urte, langilea)
-Bai, zerbait entzun dut
-Gellaoko auzolagunek nahi badute...



7 - AMAIA ARANBURUZABALA PAGALDAI

(16 urte, ikaslea)
-Ez, ez dut entzun
-Arazoak Eskoriatzarren artean konpondu behar direla uste dut.




4 - ANTONIO CANELARIOS VACIOS

(26 urte, langilea)
-Ez, ez dut entzun.
-Eskoriatzarrek txarto egingo dute uzten badiete.

ESKORIATZAKO EUSKARAREN KALE NEURKETA

EKB taldearen laguntzarekin AXTROKI KULTUR ELKARTEAK Eskoriatzako euskeraren kale erabileraren neurketa burutu du azaroan. Kale erabileraren neurketa herri guztietan urtero egiten den neurketa dugu, eta orain artean Eskoriatzan egin barik zegoena. Neurketa bi egunetan zehar egin da: azaroaren 12an, asteazkena, 18:00etatik 20:00etara eta azaroaren 15ean, larunbata, 11:00etatik 13:00ra eta 18:00etatik 20:00etara Eskoriatza erdigunean.



Irudian ikus dezakegunez, 0tik 14ra bitartean euskeraren erabilera askoz haundiagoa den arren, hortik 64 urte bitartean beherakada itzela dago. 25-64 bitarteko taldean dagoen alde ulergarria izan daiteke Eskoriatzako etorkin kopurua eta frankismo garaian jasandako atzerakada kontutan hartzen baditugu, baina benetan kezkagarria dena 14-25 arteko taldearen egoera da. Tarte horretan euskaldunok euskera erabiltzetik erderara pasatzen garela adieraziko luke eta hori da benetan zaindu beharrekoa.

Adin taldeen araberako fitxa

Adina	EUSKARAZ					ERDARAZ				
	0-14	14-24	25-64	65-...	Guztira	0-14	14-24	25-64	65-...	Guztira
Adin taldeak nahastu gabe	18	5	14	10	42	4	10	36	2	52
Adin taldeak hurrekin nahastuta	13	2	12	1	28	21	2	34	9	66
Adin taldeak nahastuta baina haurrik gabe		3	9	2	14		1	3	2	6
GUZTIRA	31	10	30	13	84	25	13	73	13	124

Sexuaren araberako fitxa

Adina	EUSKARAZ					ERDARAZ				
	0-14	14-24	25-64	65-...	Guztira	0-14	14-24	25-64	65-...	Guztira
Emakumezkoak	40	26	23	10	84	3	17	10	4	34
Gizonezkoak	31	3	25	5	64	5	33	29	4	72
GUZTIRA	71	19	43	15	148	9	50	39	8	106

Talde tamaiñaren araberako fitxa

Adina	EUSKARAZ					ERDARAZ				
	0-14	14-24	25-64	65-...	Guztira	0-14	14-24	25-64	65-...	Guztira
Bikoteetan doazenak	13	2	7	8	30	4	9	13	5	46
Hirukoteetan doazenak	15	1	3	2	21	4	1	11	5	21
Laukoteetan doazenak					0	3		9		12
Boskoteetan doazenak		5			5	1	5	4	5	15
Talde haundiagotan doazenak	3		3		6	3		5	5	14
GUZTIRA	31	8	13	10	62	15	15	57	21	108

HERRI SARRERAKO KARTELAK

Honezkero konturatuko zineten herriko sarrera bietan kartel berriak ditugula. Hauek ere Axtroki taldeak ezarri ditu Udaletxearen bitartez eta ikusten ditugun bakoitzean euskararen kontzientzia izan dezagun balioko dutela espero dugu, izan ere goiko emaitzak ikusita beharra badagoela ondoriozta bait daiteke.



GALARTZAKO NATUR ETXEAK ZABALDU DITU BERE ATEAK

Azaroaren 29an inaguratu zen Almeneko egoitza berri hau eta zenbait ikasle hasi dira jada bertan egonaldiak egiten. Ekintza ugari egiten dituzte; ortua lantzen ez bada, tailerretan egurra, ehuna edo eta buztina lantzen.

Askoren ametsa zenak eman du bere fruitua. Hainbat guraso, irakasle eta ikaslek Galartzako abadetxearen birmoldaketan izerdi ugari bota bazituzten ere, ez dira ez hauen ahaleginak hutsean geratu. Asmo onez eta ilusio haundiz aritu dira zenbaitzuk amets hau egia bihurtzeko ahaleginetan, eta azkenean horra! Iritsi da ordua eraikin eder honen babesean beren xedea gauzatzeko.

Etxea zertarako?

Agian askok galdetuko diozue zeuen buruari, ea zer dela eta birmoldatu den Muru mendiaren magalean dagoen abadetxe hau. Almeneko hezkuntz proiektuaren ardatzean oinarritzen dira bertan burutu nahi diren ekintzak. Natura Almeneko hezkuntzan presentzia haundiko zerbait izaki, honi ildotik irakaskuntza proiektuan leku aberatsago bat eskeintzeko gogoia aspaldidanik zebilen zenbaiten buruan. Horrela, beren asmoak gauzatzeko aproposa izango zelakoan birmoldatu dute Galartzako abadetxea, hemendik aurrera Leintzgain izenez ezagutuko dugun Natur Etxe hau.

Proiektuaren xedea

Bi esalditan laburbildu daiteke aurrera eraman nahi den proiektu honen helburua: Alde batetik, gure arbasoak Naturarekin loturik zeuzkaten bizitza, ohitura eta baloreak berreskuratzea, haurren sentsibiltatea sortaraziz. Eta bestetik, euskal-kulturaren esparrurik garrantzitsuenak suspertu Natura, Hizkuntza, Ohiturak eta Artisautza ardatz hartuz.

Leintzgain gune esanguratsua izango da, ikaslea gustora sentitu eta espazio egokituago batean ezagupen eta bizipen gehiago izan ditzan. Elkar sustraitzen diren ekintzak



Jon Iñaki eta M^a Karmen Burgosen ardurapean besteak beste honako ekintzetan murgilduko dira haurrak:

* **Nekazal munduari loturik;** Ortu lanketak, elikadura, fruitarbolak, ingurugiroa, animaliak, erreziklaia...

* **Hizkuntza-ohitura mundua:** Bertsolaritza, historia, ipuinak, dantza, musika....

* **Artisautza mundua:** Buztina, egurra, ehuna...

Leintzgain Natur Etxe honetan egunero egongo da ikastolako talderen bat esperientzi berriak ezagutzen. Ikasle guztiak igaroko dituzte bertan zenbait egun eta zenbait gau 3 - 18 urte bitartekoentzat prestatutako programazioa astiro beteaz.

Cuenta Joven
de Caja Laboral
El servicio
más completo.


Euskadiko Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuena.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

 **kutxa** fundazioa
fundación





atseginagoa da, eta berriz errepikatu gura dugu”.


Egurra landuz “Lau buru” dotoreak egin zituzten. Negutegian ere << lana gogotik >> egin omen zuten, bai ote?. Jon Iñakirekin berriz, bertso saio itxurosoa. Batez ere, Heriotza gaitzat hartuta eginiko bertsoak dotoreak ziren oso, ezpairik gabe bertako kanposantuan inspiratuta, <<kanposantua oso makabroa da, “gaur ni eta bihar zu etorri behar” jartzen du, buruhezur eta guzti gainera >>. Auskalo, nork daki, agian beste lau urte barru Bertsolari Txapelketa Nagusian izango dugu Eskoriatzako ordezkariaren bat txapela lortu guran.

Baina ez ziren denbora guztian lanean aritu ez, jolas ere gogotik egin zuten. Batzuk Jon Iñakik prestatuta eta beste batzuk, beren kabuz, “inprobisatuta”: Kojinekin borrokak...eta horrelakoak. Beste behin berriz, komunak garbitzea tokatu zitzairen, baina zer da komunak garbitzea: jolastea ala lanean aritzea?. Kontuak kontu, gustora ibili ziren eta hori da garrantzitsuena, izan ere, haurrak gustora dabiltzanean asko ikasten dute.

ESKORIATZAKO HAURRAK:

“Guretzat oso esperientzia aberasgarria izan da”.

Eskoriatzako haur batzuek egin dute jada beren egonaldia Leintzgainen. Guk Paula, Nerea, Joseba, Zurine eta beste lagun batzuekin solasalditxo bat izateko aukera izan genuen, eta hala esperientzia berri honetaz duten inpresioa ezagutu dugu. “Gustora ibili gara, klaseak baino



ANGEL Aseguroak

Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...

Arana, 19 Behea • Tf. 943-715203 • ESKORIATZA

Pub ALDATZ

Tfnoa.: 714171

Goizeko 10etatik zabalik



DORIETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.

- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Tfnoa-Faxa: 714845

ESKORIATZA

MIRENTXU TABERNA

Tfnoa.: 714167

Kafe goxoa hartzeko

EUSKARAREN ASTEA

Udazken kultural barnean ospatu zen aurten ere euskararen astea. Astean zehar, Nepalean zehar Mikel D. de Gereñu eta Jon Zurutuza eskoriatzarrek egindako ibilaldiari buruzko diapositiba emanaldi interesgarria izan genuen. Hurrengo, Jose M^º Karrerek ipuin sorta ederra eskeini zigun bertara joan ginenoi (ez askorik egia esan) eta umeek bezain adi jarraitu genituen fantasiaz beteriko kontuak.

Zapatua egun nagusia izan zen. Arratsaldez Takolo Pirrux eta Porrotx paila-soek izugarritzko arrakasta eduki zuten. Aspaldian ez da Eskoriatzako pilotalekua hain beteta ikusteko aukerarik izan. Gauean berriz, txiste kotalariek izan zuten "ume haundoi" barre eragiteko ardurua, eta tarteka, Gardokiren soinuaren laguntzaz dantza bat edo beste ere egin genuen. Orain bi urteko markara urreratu ere ez ginen arren (orduak 80 lagun egon ginen), giro ona sortu zen afarian.



Udazken kultural barruan bandakoak antolatu zuten Gari-
ren kontzertua ere arrakastatsua izan omen zen, kanpo-
konde ugari ikusten zen Eskoriatzan egun horretan.



"Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan (1497-1997)"

liburuxka aurkeztu zen abenduaren 12an Aretxabaletako Euskal Etxean. Liburuxkaren egilea Iñaki Urreta Leturiondo da eta Eskoriatza eta Aretxabaletako udaletxeek argitaratu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Liburuxkak hiru zati nagusi ditu: egin berri diren ospakizunen aipamena lehenik, Leintz Bailarak Gipuzkoan sartzeko jarraitu zuen prozesuaren laburpena ondoren eta azkenik, Gipuzkoarekin bat egiteko zin egin zuten leintzarren zerrenda eta bailarako armarrak. Edukina euskaraz eta gaztelaniaz dago; ingelezko laburpen txiki bat ere badauka. Aurkezpenean esan zuten, 125 pztan jarriko dute salgai.

1998KO TARIFA BERRIAK.

Urtero udalari ordaindu behar izaten dizkiogun tasek orokorrean %2ko igoera izango dute, baina gehitxoago igoko diren zerbitzuak ere badaude. Ura adibidez, %7a igoko da. Baina gehien igoko dena zabor zerbitzua da, %20koa izango da zerbitzu honen igoera. Udalean argitu digutenez, zabortegi aldaketagatik igo dira horrenbeste zerbitzu honen kostuak. Izan ere, Deba Garaiko Mankomunitateak (hau da zaborrak biltzeaz arduratzen dena), Udalako zabortegia itxi zenetik zaborrak Sasieta (Beasainera) eramaten ditu, eta honek, jakina, kostuaren igoera dakar berarekin.

GEILAOKO BIZILAGUNEN ESKAERA AZTERTUZ

Geilaoko bizilagunek Eskoriatzako udalari egin dioten eskaera, atxabaltar izatera pasatzearena alegia, hilaren 28an egingo den plenoan, sakontasunez aztertuko den gaia izango da hau. Udaletxeko aktetan begiratu beharko da auzi honek zer nolako irtenbidea izan dezakeen ikusteko. Baina aurreikus daitekeenez, Geilao Aretxabaletara pasatzea onartuta ere, Aretxabaletako udalak, 30 mila milioiko diru-klausula ordaindu beharko lioke Eskoriatzako udalari, historikoki gurea den lurralde bat eurenaganatzeagatik.

NORA ISASI, TELESKOKO LANGILE BERRIA

Haize berriak etorri dira Teleskora iragan diran azken aste hauetan. Lekuk lankide berri bat dauka, Nora Isasi arrasatearra, 22 urtetakoa eta kazetaritza ikaslea. Euskal Herriko Unibertsitateak emandako beka baten bidez dago Nora Eskoriatzan, eta Telesko apur bat bizitzeko asmoarekin dator gainera. 6 hilabetez egongo da bertan, eta berak izango du hemendik aurrera albistegietako erredakzio lanak egiteko ardurua. Berari buruz zerbait gehiago jakin nahi izanez gero irakurri gure hilabeteko pertsonaiarekin egindako elkarrizketa.

VILLAR ILEAPAINDEGIA

Tfnoa.: 715042.

BEKAK

- Europako Komunitatean itzultzaile lanak ikasteko bekak. Epea: abenduak 31.
- Ekonomia ikerkuntzarako bekak, "Banco de España" k deituak. Epea: urtarrilak 16.
- 1998-99 ikasturtean edo 1998ko udan atzerriko unibertsitatean ikasketak burutzeko laguntzak deitu dira. Austria, abenduak 30; Erresuma Batua, abenduak 30; Danimarka, urtarrilak 8; Belgika, urtarrilak 14; Irlanda urtarrilak 14; Portugal, otsailak 4; Alemania, urtarrilak 13; Frantzia, martxoak 6...

LANA

- Oiartzungo Udalak, hainbat lanpostu kale-ratu ditu: itzultzailea, elektrikari espezialitateko zeregin anitzeko ofiziala, ur zerbitzura-ko zeregin anitzeko ofiziala. Epea: abenduak 26.
- Tolosako Udalak, tronpa, tronpeta, xirula eta biolontxelo irakasleak behar ditu. Epea: abenduak 29.
- Arrasateko Udalak, zerbitzuetako ikuskatzaile bat eta bi administrari laguntzaile (1 balio urrituentzako) bejar ditu. Epea: BOEn argitaratu zain dago.

IKASTAROAK

- Alboka: urtarrilaren 17tik San Juanak arte. Larunbat goizean, Arrasate Musikalen. Hastapen eta sakontze mailak. Matrikula 3.000 pzta (1.500 pzta ikasle eta langabetuentzat). Izen emateak Arrasateko Gazte Bulegoan (770065).
- Dantza Karibearrak: hastapen maila, urtarrilaren 19tik otsailaren 18ra. Astelehen

Liburutegiko oharra:

Gogoratu, liburutegian mailegu zerbitzua informatizatu dutenez urtarriletik aurrera txartel berria beharko duzula liburuak ateratzeko. Beraz, egin barik baldin badaukazu oraindik, pasa zaitez liburutegitik, lehenbait lehen egitea komeni da eta!

MENDIZALE FEDERATU TXARTELA

Aurten **Euskal Herriko Federakundearen txartela** ateratzeko aukera dago lehenengo aldiz. Esan digutenez 1000 pzta merkeagoa da baina ez du Espainako aterpetan beherapenik egiteko balioko ezta Espainiako Federazioak antolatutako ekintzatan beherapena lortzeko ere. Dena dela aukera dago 1000 pztako gehigarri bat ordainduta aukera horietaz baliatzea. Mendizale federatu karneta berriztu edo berria atera nahi baduzu, pasa zaitez Namaste dendatik eta han emango dizkizute argibide guztiak. **Epea abenduaren 29a**, lehen txandarako (hauek urtarrilaren erdialderako izango dute txartel berria. Bigarren txanda urtarrilaren bukaera aldera izango da.

PREZIOAK

ESPANIARAKO	6.350
FRANTSEZ PIRINEOA	9.700
EUROPA	10.975
MUNDUA	21.300

GEHIGARRIAK:

Espedizioak:	40.000
Alpetar eskia:	2.975
B.T.T.:	2.650
Espainiako Federazioko aterpeak:	1.000

eta asteazkenetan 7.30etatik 9.30etara, Musakolako Saloian. Matrikula 4.000 pzta (2.500 pzta ikasle eta langabetuentzat). Sakontze maila, otsailak 23tik aurrera.

- Dantza garaikidea: interesatuta bazaude, eman izena lehen bait lehen Arrasateko Gazte Bulegoan (tel. 770065). Ikastaro bat antolatzeko nahikoa jende dagoen jakin nahi dugu.

LEHIAKETAK

- Cataluñaiko Emakumearen Institutuak, emakumeei zuzenduriko argazki lehiaketa antolatu du, arrazismoa eta xenofobia gaitzat hartuta. Epea: abenduak 30.
- Bilboko pop-rock lehiaketa. Sariak; CD bat grabatzea eta 300.000-150.000 pzta bitarteko lau sari, eta 100.000 pztako 5 akzesit. Epea: abenduak 31.
- Pasaiko Udal Euskaltegiaren eskutik, IV. Ipuin Lehiaketa, gai librean eta euskaraz idatziak. Epea: urtarrilak 8.
- Gasteizko Udaleren eskutik, narrazio laburren III. lehiaketa. Emakumeei zuzendua, gai librean eta euskaraz zein gazteleraz aurkeztu ahal izango dira. Epea: urtarrilak 28.
- Gazte Kutxak, urteroko ikasketa-bidaien proiektu lehiaketa antolatu du, Gipuzkoako ikastetxeetan ari diren BBB, IEE, UBI, LH I, LH II, LOGSE Batxilergoa eta unibertsitate mailako ikasketek parte hartu ahal dutelarik. Epea: martxoak 7.

DEBAGUNEREN EGUTEGIA

Debaguneren egutegia adalirenean egongo da salgai (300 pztatan).

BERTSO ESKOLA

AED, LORAMENDI eta AXTROKI elkarteak bailara-ko bertso eskolari bultzada bat ematekotan ari dira. BERTSOZALE ELKARTEA-REKIN batera antolatuko omen da eskola hau eta ahal izanez gero herri bakoitzean talderen bat sortzeko asmoa dago.

Bertso eskola hamar hamabost urte bitarteko gazteentzat izango da eta eskualdeko bertsolari gazteak izango ditu irakasle. Matrikula 2.500 pta izango da ure osorako. Informazio gehiagorako deitu:

Eskoriatzan Axtrokira
714077

Aretxabaletan Loramendira
770970

Arrasaten AEDra
771228



JAIOTZAK

- Azaroaren 10an, Mikel Lizaranzu Elorza.
- Azaroaren 29an, Aitor Fernandez de Arroyabe Murillo.

EZKONTZAK

RAUL VILLAMAYOR
AMAYUELAS eta SUSANA
MELGAR GOMEZ 1997ko
abenduaren 6an.

Gaztañadui, 21



Tf. 715387 • ESKORIATZA

AZOKA:

- Renault 5 (SS-P)-a salgai. Deitu telefono hauetara: 779330-798135
 - Irailetik aurrera neska bat pentsio osoan hartuko duen familia behar da. Ikaslea 797473
- Ze Barri?n informaziorik argitaratu nahi baduzu, utzi Kultur Etxeko buzoian, Ze Barri?rako dela zehaztuz.**



40 bat urte dira Santa Luzia ospatzen ari zirela argazkiko emakumeak. Piedad Zaldua jostun irakaslea zen eta beste guztiak bere ikasleak.

Ezkerretik eskuinera: Carmen Pagaldai, Teodora Diaz de Gereñu, Piedad Zaldua, Basilisa Zubia, Benita Izurrategi, Milagros Uribebarria eta Trinidad Urzelai.

Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Leintz Udal Euskaltegira!

Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz argituko da
inoiz bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu Herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.

Eguberri on!

**LEINTZ
UDAL EUSKALTEGIA**

Durana, 11
ARETXABALETA
Tel.: 79 21 68

Fernando Enparantza
ESKORIATZA



UDAL
EUSKALTEGIAK